

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[3. zk.] 2022ko martxo

SAREAN EUSKARAZ

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ETA EUSKARA

Elkarrizketa Itziar Berrospe
eta Iñaki Agirre informatika
arloko arduradunei

EUSKAL TRESNA DIGITALAK

Lanean ele biz aritzeko
lagungarriak diren tresnak

ERA.EUS

Nafarroako toki-entitateetako 28
euskara zerbitzuek elkarlanean
sortutako webgunea



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[3. zk.] 2022ko martxo

Koordinatzailea:
Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:
Aurrerapen Digitalerako
Zerbitzua, Hizkuntza
Baliabideen
Zerbitzua, Argitalpen Atala,
Nafarroako
Parlamentuko prentsa
zerbitzua, Nafarroako
Udaletako Euskara
Teknikarien Sarea.

Diseinua: cobo-munarriz.com
Irudiak: Oscar Munarriz
eta Freepik
Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian
argitaratutako artikulak
berriak daitezke bai osorik,
bai zatika, baina artikulak
nondik atera diren aipatu
behar da beti.
ENAP aldizkariak ez ditu
derrigor bere egiten artikulak
eta kolaborazioetan agertzen
diren iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-
Euskararen Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

- 4 **Elkarrizketa:** Itziar Berrospe eta Iñaki Agirre
- 8 **Erreportajea:** Euskal tresnak
- 14 **Gobernutik:** Nafar Egileen Antologia
- 15 **Parlamentutik:** Parlamentuaren bisita birtuala
- 16 **Udaletatik:** ERA Nafarroa
- 17 **Euskarabidetik:** Sarean Euskaraz
- 18 **Hiztegi terminologikoa:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT)
- 19 **Ohar historikoa:** Euskararen jatorria Nafarroan



Foru Diputazioko Nekazaritza Zuzendaritzak Nafarroako herri batean nekazariei eskainitako informazio-hitzaldi baten ikuspegi orokorra, 1938ko abuztuaren 20an José Galle Gallego argazkilariak hartua. Lehen planoan, gizon bat mahai baten gainean jarritako proiektagailu eramangarri bat erabiltzen ari da. Atzealdean, mahai baten gainean jarrita, proiektzioaren pantaila dago.

Vista general de una conferencia informativa ofrecida por la Dirección de Agricultura de la Diputación Foral a los agricultores en una localidad de Navarra, tomada el 20 de agosto de 1938 por el fotógrafo José Galle Gallego. En primer término, un hombre maneja un equipo proyector portátil instalado sobre una mesa. Al fondo, la pantalla de la proyección instalada sobre una mesa.

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena euskarabidea@navarra.es helbidera.



Itziar Berrospe

Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuko Zuzendaria



Iñaki Agirre

Atariak eta Ezagutza Kudeatzeko Ataleko sistema informatikoetako goi-mailako teknikaria

Administrazioaren sistema informatikoak

Zein dira zuen Zerbitzuaren eginkizun nagusiak? Nola hasi zineten informatikaren munduan?

► ITZIAR BERROSPE:

Gure Zerbitzuaren helburu nagusia eraldaketa digitala bultzatzea da. Hiru arlo nagusi dauzkagu. Batetik, datuekin eraldaketa digitala aurrera eramateko ardatza dugu, eta gai honen lanketa Datuen Ingeniaritzaren Atalean egiten da. Gobernuaren proiektuak datuz hornitzen ditugu, erabakiak erraztasun handiagoarekin har ditzaten. Era berean, adimen artifiziala erabiltzeko proiektuak garatzen ditugu.

Bestalde, herritarrak erdigunean jarri nahi ditugu, eta guretzat gai honek garrantzi handia du. Horretarako gaitasun digitala lantzen dugu, herritarren jakintza sustatu nahi dugulako, eta hau gauzatu ahal izateko prestakuntza eskaintzen dugu Gobernuko

Departamentuekin lankidetzan, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako Planaren esparruan (<https://picd.navarra.es/eu>). Herritarrek funtsezko informatika ezagutza batzuk izan behar dituzte; segurtasuna, arazoak konpontzeko bideak, edukien kudeaketa, edukien bilaketa, eta komunikazioa. Herritarren ezagutza hauek guztiak lantzeko Digcomp izeneko proiektuan lanean dihardugu. Atariak eta Ezagutza Kudeatzeko Atalean Gobernuko Ataria dute helburu nagusi; haien eginkizunetako bat herritarrentzat gertukoak diren web orrialdeak sortzea da.

Nire esperientzia profesionalari dagokionez, Telekomunikazio Ingeniaritza ikasi nuen, eta telematikan egin nuen espezializazioa. Berehala informatika munduan hasi nintzen, lehenik, enpresa pribatuetan aritu nintzen eta 35 urte nituela Gobernuan lanean hasi nintzen.



► IÑAKI AGIRRE:

Nik informatika teknologien proiektuak kudeatzen ditut eta azken hamabost urte hauetan batik bat webguneak kudeatzen ditut. Herritarrentzako informazioa eskura jartzen dugu, eta euskarri digital hauek eraikitzeko proiektuak garatzen ditut.

Lan esperientziari dagokionez, informatika munduan aspaldi hasi nintzen. Hamasei urte nituela aitak ordenagailu bat oparitu zidan, programatzen hasi nintzen eta izugarri polita iruditu zitzaidan. Sormena lantzeko aukera paregabea deskubritu nuen, gauza asko egiteko modua; eta hori ezagututa, Informatika lizentziatura ikastea erabaki nuen eta ondoren, doktoretza egin nuen. Informatika munduan beti badago zer ikasia, etengabeko ikasketa batean gaude; ezagutza eguneratzea oso garrantzitsua da guretzat. Hogei eta bost urte nituela informatikari gisa lanean hasi nintzen eta hiru administrazio ezberdinetan aritu naiz. Nafarroako Gobernuan dagoeneko hamarkada bat egin dut lanean.

Nafarroako Administrazioaren informatizazio prozesua nolako izan da, eta zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

► ITZIAR BERROSPE:

Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiko lehen proiektua Nafarroako Aldizkari Ofiziala webgunean argitaratzea izan zen; 1996 urtean izan zen gutxi gorabehera. Informazioa argitaratzea eta prozesu informatikoak hobetzea izan ziren gure lehen urratsak. Bi arlo hauetan etengabeko hobekuntzak egin ditugu.

Geroxeago, administrazio elektronikoa aldaketa bat egon zen teletramitazioaren eta autentifikatze sistemaren bidez. Aurrez aurreko arreta ez da ezinbestekoa gaur egun herritarrentzat, tramiteak online egin ditzakete, eta honek aldaketa handia ekarri digu. Bide hauek egunez egun hobetzen ari dira.

Bestalde, datuen inguruan hitz egin nahiko nuke; izan ere, aberastasun handia dugu informazio hau esku artean izanda. Adimen artifiziala erabilia aurrerapen handiak egin ditzakegu. Administrazioa proaktiboagoa bihurtu behar da, eta haxe izanen da gure erronka nagusia.

Langile publikoei zein gomendio ematen dizkiezu segurtasun edo erabilera egokiaren aldetik?

Gure Departamentuko Segurtasun Atalak, eta Datuak Babesteko Ordezkaritzak gai hauek lantzen dituzte. Atal hauek elkarlanean aritzen dira eta hainbat proposamen elkarrekin egiten dituzte. Segurtasunarekin lotutako arriskuak ekiditeko, langileen tresna baliagarrienak, jarduera egokiak eta prestakuntza izanen liriteke. Datuak Babesteko Ordezkaritzak gai honen inguruko edukiak lantzen ditu; egun, adibidez, administrazioko langile guztiei zuzendutako ikastaroak prestatzen ari dira formakuntza eskaintzeko asmoz. Horrela, langileek datuen babesaren inguruan ezagutza handiagoa lortuko dute. Beste alde batetik, lehenago aipatu dudana Digcomp izeneko proiektua sustatzen ari gara, segurtasunaren inguruko arloa lantzeko. 10 minutuko ikastaroa egin dugu, eta aurki online zintzilikatuko dugu.

Oinarriko gomendio batzuk eman genitzake; esate baterako, jasotzen ditugun mezu elektronikoen jatorria egiaztatu behar dugu, kontu handiz ibili behar gara gure datuak ematen ditugunean, erabiltzen ditugun



estekek giltzarrapoaren ikurra izan behar dute iturria ziurra dela jakin dezagun, eta bar. Baina batez ere formakuntza eta adi egotea dira garrantzitsuak..

Zein da Nafarroako egoera sareei dagokienez (5G, zuntz optikoa...)?

► ITZIAR BERROSPE:

Nafarroan dugun sare propioa solidoa eta sendoa da. Gure sarea zuntz optikoan eta eratzun bikoitzean oinarrituta dago eta egoitza nagusietan dago lotura. Sare hau Nafarroa osoan zabaldu dugu, eskola edota osasun etxe guztietara iristeko, eta aldi berean egitura publikoaren hedapena probestu da, herrietako etxeetara ailegatzeko. 5G-ari dagokionez, hura izanen da; hurrengo erronka, lerro honetan lanean ari gara eta proba pilotuak egiten hasi gara dagoeneko.

Zenbat webgune ditu Gobernuak?

► IÑAKI AGIRRE:

Zaila da kopuru zehatza ematea, baina momentuz 225 webgune zenbatu ditugu. Oso kopuru dinamikoa da, ia astero webgune berri bat sortzen da, eta beste batzuetan itxi edota bertan behera uzten ditugu. Gure atari nagusia navarra.es edo nafarroa.eus da, eta plataforma honen barruan daude webgune gehienak, eta beste batzuk atari honetatik kanpo daude.

Zuen sareek inoiz eraso informatikorik jasan dituzte?

► ITZIAR BERROSPE:

Bai, enpresa eta instituzio guztiek bezala, etengabeko erasoak jasaten ditugu, eta

segurtasuneko lankideak horren gainean daude. Gure sareak babestuta daude, baina denok oso adi egon behar dugu, bai Informazio eta Komunikazio Teknologia profesionalak, bai erabiltzaileak. Gaur egun, zibererasoak oso ohikoak dira, denok gaude arriskuan eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara. Zibersegurtasuna gero eta ahalegin eta baliabide gehiagorekin kudeatzen dugu, asko lantzen dugun gaia da, batez ere IKTek ematen dizkigun prestazioak eta erabilgarritasuna ez konprometitzeko.

Sistema eragilea, nabigatzailea, programak... euskaraz erabili daitezke?

► IÑAKI AGIRRE:

Sistema eragilea ezin da euskaraz erabili; momentuz behintzat ez. Aipatu dituzun beste gauza guztietan euskaraz aritu gaitzke; bueno, gehien erabiltzen direnetan. Nabigatzaileak euskaraz daude, office euskaraz dago, baina horrelako aplikazioak euskaraz jarri nahi dituenak guri eskatu behar digu espreski. Administrazioan gaztelania lehenetsita dago, eta automatikoki gaztelaniaz izaten ditugu aplikazioak.

Zeintzuk dira sarean elebitasuna bermatzeko zailtasun edo oztopoak?

► ITZIAR BERROSPE:

Orokorrean eduki guztiak gaztelaniaz idazten ditugu, eta ele biz egiteak itzulpena egitea eskatzen digu. Arazo nagusia hau izanen litzateke, lan karga pixka bat handitu egiten dela, alegia.



Unitate bakoitzak erabakitze askatasuna izaten du, ele bietan jarri ala gaztelaniaz jarri; momentuan daukaten lanaren arabera izaten da erabakia. Baliabide teknikoak dagokienez, ez dago inolako arazorik, gaur egun dena egin daiteke ele bietan.

Bestelako euskarri batzuekin zailtasun gehiago izaten dugu; ikastaro bat egiten dugunean, adibidez, ele biz egiteak lana atzeratu egiten du eta gastua handitu. Elebitasuna eta aldibereotasuna bermatzea zailagoa da. Hala ere, itzultzaile neuronalek sekulako aldaketa ekarri dute arlo honetan, eta aurrerantzean baliteke automatikoki edukiak ele biz sortzea.

Eleaniztasunaz gain, webguneetan irisgarritasuna bermatzen da? Nola?

► IÑAKI AGIRRE:

Printzipioz bermatzen dugu, bai. Webguneen irisgarritasuna zaintzea gure eginkizunetako bat da. Azken urteetan lan lerro honi garrantzi handia eman diogu; web orrialde zaharretan ez genion horrenbesteko lehenetsunik ematen. Tresna berezi batzuk erabiltzen ditugu irisgarritasun zailtasunak hautemateko, eta horren arabera hobetzen saiatzen gara.

Programatzea beste hizkuntza bat ikastea bezala da?

► IÑAKI AGIRRE:

Informatikan lengoia asko daude; nik hasiera batean Basic izenekoa ikasi nuen, baina

gaurdaino, hamabost bat inguru erabili ditut. Programatzeko orduan, buruan ongi ordenatu behar dira prozedurak. Garai batean Roskildeko Unibertsitatearekin proiektu bat garatu genuen programak egiteko, eta programa hauek berez, beren kabuz, programa berriak sortzen zituzten arazo batzuk erabakitze. Adimen artifizialean aurrerapen handia egin da, ordenagailuei programatzen irakasten zaie.

► ITZIAR BERROSPE:

Lengoaia baino gehiago matematika eta fisika kontua da; horregatik bi arlo hauetako jende asko informatika munduan aritzen da lanean. Adimen artifizialean linguistika izeneko arlo bat dago, eta honek harreman zuzena du hizkuntzaren interpretazioarekin. ■

► En esta entrevista los responsables de sistemas informáticos del Gobierno de Navarra, Itziar Berrospe e Iñaki Agirre, explican el funcionamiento de estos sistemas y las posibilidades de su uso bilingüe.

EUSKAL TRESNAK

Jarrian, euskaraz lan egiteko sarean dauden baliabideak aurkeztuko ditugu:

EUSKARABIDEAREN WEBGUNEA

<https://www.euskarabidea.es/>

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua Herritarrekiko Harremanetako Departamentuari atxikitako erakunde autonomoa da.

Webguneak lagungarri izan nahi du euskara sustatzeko, ikerkuntza soziolinguistikorako eta prestakuntzarako. Euskararen inguruko albisteak, agenda, Nafarroako euskalkiei buruzko informazioa eta argitalpenen zerrenda biltzen ditu, besteak beste.


Webguneaz gain, Twitter:

https://twitter.com/euskarabidea_na?lang=eu

eta Youtube:

<https://www.youtube.com/channel/UCnaoBPEakYLL58CSmoe2o1g>


kanalak ere badira.



NAFARROAKO EUSKARAREN MEDIATEKA

<https://www.mediateka.eu/eu/>

Nafarroako Euskararen Mediateka Euskarabideak abian jarritako proiektua da. Proiektuaren helburua da Nafarroako euskalki desberdinetan ekoiztutako mota guztietako materiala euskararen gaineko interesa duen edonoren esku jartzea; Nafarroako euskalkietan dauden ikus-entzunezko nahiz soinu-grabazioak, batetik, eta, bestetik, testu idatziak. Proiektuari duela hamar urte eman zitzaion hasiera eta Nafarroako Gobernuak eta Euskal Kultur Erakundeak elkarrekin sustatutako proiektua izan zen.



UNITATEEN ITZULTZAILEA

<https://euskarabidea.es/euskara/egitura-organikoa>


Nafarroako Gobernuako unitate organikoen izen ofizialak euskaraz nola izendatzen diren bilatzeko tresna da. Gobernuako Itzulpen Atalak osatu eta eguneratzen du.



EUSKALBAR

<https://www.elhuyar.eu/eu/prentsa-aretoa/euskalbar-eguneratu-dugu>

Euskalbar, nabigatzailean instalatzen den aplikazio bat da. Nabigatzen ari garen bitartean euskarazko terminoak aurkitzeko, itzultzeko edo esanahiak jakiteko oso erabilgarria da. Erraz egin daitezke kontsultak hainbat hiztegi eta corpusetan (Euskalterm, Elhuyar, Hiztegia 3000...).




EUSKALTERM

<https://www.euskadi.eus/euskalterm/>

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen terminologia banku publikoa da. UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak 1987an sortu zuen Euskalterm, eta banku haren gainean eratu zen, 2001ean, Euskalterm Terminologia Banku Publikoa.

Euskalterm erreferentziatzko bankua da euskarazko terminologiaren erabiltezaileentzat; izan ere, urteetan egindako euskarazko terminologia-lana biltzeaz gain, Terminologia Batzordeak onetsitako eta gomendatutako terminologia ere eskaintzen du. Bankuaren helburua, beraz, gomendatutako euskarazko terminologiaren erabilera bideratzea da. Guztira 100 hiztegi inguru daude jasota.

Termino sinpleak edo konplexuak kontsulta daitezke, eta bilaketa iragazteko honako aukera hauek daude: hizkuntza (gaztelania, euskara, frantsesa, ingelesa, latina eta alemana); testua (bilatu nahi den terminoa); non bilatu (bilaketako testuaren hasieran, amaieran, erdian...) eta sailkapena (jakintza-arloa). Horrez gain, hiztegien araberrako bilaketa aurreratua ere egin daiteke, emaitza zehatzagoa eskatzeko.




ERREPORTAJEA

ELIA ITZULTZAILEA

<https://elia.eus/itzultzailea>

Elhuyarren doako itzultzaile eleanitz automatikoa da. Sei hizkuntza hauen arteko itzulpenak egiten ditu: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa.


Webgune baten bidez zein mugikorreko app baten bidez erabil daiteke.



ITZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

<https://www.ivap.euskadi.eus/itzultzaile-automatiko-neuronala/z16-a2izo/eu/>


IVAPek itzultzaile automatiko neuronala egokitu du testu juridiko-administratiboak itzultzeko. Horretarako, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak urte askoan euskaraz-gaztelaniaz bildutako segmentu-pareak erabili dira, tresnari irakasteko. Onuragarri izan liteke Administrazioako testugintzan laguntzeko, baina ez da ahaztu behar tresna hau lanean laguntzeko besterik ez dela, eta bere emaitzak beti berrikusi behar dira.



ITZULI +

<https://www.euskadi.eus/itzuliplus-deskargak/web01-a2eutres/eu/>

Sare neuronalen bidez funtzionatzen duen itzultzaile automatikoa da, tresna-barran ipintzeko aukera ematen duena. Testu orokorrak itzultzen ditu euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara.



ERREPORTAJEA

XUXEN

<http://xuxen.eus/eu/home>

Xuxen euskaraz idatzitako testuak zuzentzen dituen aplikazio informatikoa da.

Bi zuzenketa modu eskaintzen ditu:

- Zuzenketa: Testua aztertu ondoren, aplikazioak ezagutzen ez dituen hitz guztiak nabarmendu eta hitz ezezagun bakoitzaren gainean proposamen zerrenda bat erakusten du.
- Zuzenketa aurreratua: Hitzek hitzeko zuzenketa egiten du.

Gainera, aplikazio honek hiztegi pertsonala kudeatzeko aukera ematen du erabiltzaile erregistraturik badago.




ADITU

<https://aditu.eus/>

Elhuyarren hizketa-ezagutzaile elebiduna da, adimen artifizialean eta sare neuronalean oinarritua. Une honetan euskara eta gaztelera ezagutzen ditu, baina etorkizunean hizkuntza gehiago sartzeko asmoa du Elhuyarrekoek.

Plataformara, audio- edo bideo-fitxategiak igo daitezke, baita onlineko bideo edo audioen estekak ere, eta Adituk automatikoki eta istantean egiten du hor esaten denaren transkripzioa. Emaitza hainbat formatutan ematen du: transkripzioaren testua, azpigituluaren fitxategia, eta transkripzioa hitzen denborekin (bideoan hitz bat zehazki zer segundotan esan den jakiteko, adibidez). Transkripzioa edo azpigituluak zuzendu edo aldatu egin daitezke jaisi aurretik, Adituren onlineko edizio-interfazea baliatuta. Horrez gain, aukera ematen du ordenagailuaren edo telefono mugikorren mikrofonetik esaten duguna aldeberean transkribatzeko.




LEHEN HITZA

<https://www.lehenhitza.eus/>

Euskararen agerikotasuna handitzeko, garrantzitsua da sarean ere lehen hitza euskaraz ematea. Sareko lehen hitz hori gure gailuek ematen dute, eta horregatik garrantzitsua da gailuak euskaraz konfiguraturik izatea; webgune batera sartzean zein hizkuntza duzun nahiago esaten baitu.

Urrats txiki hau emanda euskararen pisu espezifiko handitu egiten da Interneten, webgune eleanitz bat irekitzean euskarazko bertsioa irekiko zaizu eta programa bat deskargatzean euskarazko bertsioa deskargatuko duzu zuzenean.



ERREPORTAJEA

IKASTEN

<https://www.hiru.eus/eu/e-ikasi/idiomas/ikasten>

Ikasten.net euskara ikasteko baliabide didaktikoa da, munduko edozein tokitan euskara ikasteko diseinatua. Autoikaskuntza ikastaro honek ataletan antolatutako 60 unitate didaktiko ditu, eta errepositorako 12 unitate eta hainbat ekintza ere badakartza: audioak, bideoak eta ariketak.

Izena ematea oso erraza da. Ikastaroa egiteko eskakizun bakarria Interneterako konexioa duen ordenagailu bat izatea da. Horregatik, ikasten.net-ek oinarritzko hiru hizkuntzako euskarria du: euskara, gaztelania eta ingelesa, erabiltzailearen aukeran.




EUSKALTZAINDIAREN ONLINE HIZTEGIAK

<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/online-hiztegiak>

Euskaltzaindiaren webgunean hainbat hiztegi kontsultatzeko aukera dago:

- * **Euskaltzaindiaren Hiztegia** hiztegi arauemailea da, oinarrian 1991n hasi eta 2015ean burutu zen **Hiztegi Batua** duena, eta adieraz, adibidez eta azpisarreraz eta sarrera berriz hornitzen duena.
- * **Orotariko Euskal Hiztegiak** euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena.
- * **Euskara Batuaren Eskuliburuak** izaera eredu-emailea du. Baina ez da ikasmetodo bat, «ezta Euskaltzaindiak emaniko arau, gomendio, onepen eta irizpenen laburpen soil eta lehorretara mugatzen den bilduma bat ere». Helburu «erabat pragmatikoa» du. Espezialista izan gabe ere euskararen barne-funtzionamenduan hausnartu nahi duen euskaldun eskoladun edo alfabetatuentzako eskuliburua da.



Euskara Batuaren eskuliburua Euskaltzaindiak 2018an, euskara batuaz emanak zituen arau, gomendio, onepen eta irizpenak bildu dituen liburua da. Zalantzak eta irizpideak alfabetikoki antolatuta daude, hiztegi bat izango balitz bezala.

Liburuak 1458 sarrera du eta gehigarri batzuk. Sarrera bakoitzean argitararbi Euskaltzaindiak zer dion adierazten da. Bestetan jarraibideak ematen dira arau maila izan gebe. Zazpi alorretako kontuak azaltzen dira: lexikoa, kalkoak, morfologia, sintaxia, onomastika, ahoskera eta ortotipografia. Euskaldun eskoladun eta alfabetatuentzako eskuliburua da.

- * **Euskal hiztegi historiko-etimologikoa.** Horrelako hiztegi bat oinarritzko baliabidea dugu hizkuntzen diakronia aztertzeke eta haien gramatika historikoa egiteko (cf. Durkin 2009). Hots, diakronia eta filologiaren inguruko ikerketa-tradizio garatuenetan asmatu eta etengabe garatu dute.

ERREPORTAJEA


- * **Literatura Terminoen Hiztegia.** Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak Literatura Terminoen Hiztegia osatu du. Lan horrek, 1991 eta 2007 urteen artean egindako lana bildu du; 800 orrialde eta 610 sarrera. Literatura terminoak euskaraz emateaz gain, azalpen bibliografikoak ere jaso dituzte hiztegiaren osaketan parte hartu duten 20 egileek.

Literatura Terminoen Hiztegiaren helburu nagusia da literaturaren teoria, historia eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertu, finkatu eta azalpen-testuetan erabiltzea.

JAGONET

[JAGONET \(euskaltzaindia.eus\)](https://www.euskaltzaindia.eus/jagonet)

Jagonet hizkuntzaren gaineko kontsultaz-zerbitzu bat da, Akademiak Internet bidez herritarren esku jartzen duena. Zerbitzuak bi helburu nagusi ditu: bata, euskararen erabilera zuzena eta egokia bermatzea, eta, bestea, erabilera horren gaineko zalantzak argitzea. Zerbitzu horretara jotzen duen erabiltzaileak bi aukera izan ditu: hizkuntza-zalantza datu-basean bilatzea eta, erantzunik aurkitzen ez badu, galdera egitea.



Ez ahaztu ordenagailuko programak eta nabigatzaileak, mugikorra edo bestelako gailuak euskaraz erabiltzeko aukera duzula.

► En este reportaje se analizan las diferentes herramientas que existen en la red para facilitar el trabajo en euskera, recordando además que podemos configurar los navegadores, programas o móviles para usarlos en esta lengua.

Egile nafarren euskal literaturaren antologia

Nafarroako Gobernuak Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia osatu du, non euskarazko idazle nafarren garrantzia nabarmentzen den. 2017 urtean argitaratu zen lehen alea, eta 2021ean, laugarrena eta azkena. Asier Barandiaran Amaria filologoa izan da lanaren koordinatzailea, hainbat ikerlarirekin lankidetzan aritu dena, horien artean Sho Hagio japoniarra.

Antologia hau lau ataletan banatua dago, eta euskal literaturaren sorreratik gaur arteko egile nafarren testu literario hautatuak biltzen ditu:



1. liburukia: Erdi Arotik errenazimentura eta erromantizismoa. Nafarroako euskal literaturaren sorreratik hasita (Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545) 1900 urterainoko ibilbidea aztertzen da lehen atal honetan, eta epe honi *Litterarum Navarrorum Primitiae* ezizena jarri diote autoreek.



2. liburukia: 1900etik 1975era arte. Hirurogeita hamabost urte hauetan aurreneko ehundaka urteetan ekoiztutakoaren pareko kopurua (edo gehiago) izateak adierazten du Nafarroan sortutako euskal literatura nola indartu zen XX. mendean zehar, eta ekarpen garrantzitsu eta orijinalak egin zizkiola euskal literaturaren sistemari.




3. liburukia: 1975etik 2000ra arte. Hirugarren agertoki honek, XX. mendean azken laurdena hartzen du kontuan eta ageri zaigu, arrazoi politiko-sozial-kultural batzuk tarteko, euskarazko literatura nafarraren loraldia izan zela urte-tarte hartan, argialetxe batzuk sortuz, egile berri batzuk sustatuz eta hainbat lan literario argitara emanez.



4. liburukia: 2000tik 2020ra arte. Antologiaren laugarren eta azken atala, zeinean XXI. mendeko lehen bi hamarkadetako testuak biltzen diren, egile berri asko sartuz, lehengo liburukietan zeudenez gain, zeinak erakusten duen zenbateko bizitasuna duen gure artean euskarazko literatura ekoizpenak.

► **El Gobierno de Navarra ha completado la publicación de una antología dedicada a escritoras y escritores de Navarra en euskera desde los inicios de la literatura en euskera hasta hoy.**

Parlamentuaren bisita birtuala



Nafarroako Parlamentuak bere webgunean dituen balidabide ezberdinen artean Parlamentuaren 3D bisita birtuala egiteko aukera abian jarri du. Bertan Nafarroako batzar legegilearen egoitzako aretoak ezagutzeko aukera dago, eta areto bakoitzean ele biko azalpenak daude bakoitzaren funtzio edo historiari buruzkoak.

Bisita honetarako (<https://my.matterport.com/show/?m=mR3HdLF7fYF&f=0>) errealitate birtualeko betaurrekoak erabiltzeko aukera ere badago, eta bista ezberdinak erabili daitezke.

Osoko Bilkuraren aretoaz gain, Batzordeen gela, Lehendakariaren bulegoa edo Parlamentuko artxibo eta liburutegia dira interesgune. ■

El Parlamento de Navarra ha lanzado una aplicación para realizar visitas virtuales 3D en su portal web.

UDALETATIK



era.eus

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek sortutako webgunean euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza emateko baliabideak aurki daitezke

Haurren euskararen ikasketa-prozesua osatzeko asmoz sortu zuten webgune hau Nafarroako euskara teknikariek. Webgune hau gurasoei laguntza emateko helburuarekin garatu zen eta eskolaz gaindiko ikasketa muga hori gainditzeko xedea du. Plataforma guraso euskaldun eta ez euskaldunentzat egokitu dute, baliabideak modu eraginkorrean eskaini daitezke.

Haurrek ikastetxeetan duten adinaren arabera ezagutzak eta gaitasunak jasotzen eta garatzen dituzte, baina euskarak gizarteko zenbait arlotan duen presentzia desorekatua kontuan hartuta, ezagutza eta gaitasun horiek eskolaz kanpo ere indartzea egokia da; esaterako, etxean, kultur jardueretan edo eskolaz kanpoko jardueretan.

Baliabideak hiru esparrutan banatuta daude: eskolan, etxean eta eskolaz kanpo. Etxeko eremuan, baliabideak gurasoen ezagutzaren arabera banatzen dituzte; batetik, euskara dakitenak eta, bestetik, euskara ikasten ari

direnak. Eskolan izeneko esparruan, mailaka banatu dituzte aukerak; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Goi-mailako Hezkuntza. Eta eskolaz kanpoko kategoriar dagokionez, honako baliabide hauek jarri dituzte eskura: Kirola, Kultura, Denbora libre eta Oporrak.

Baliabideak izeneko atalean, berriz, honakoak dira aurki daitezkeenak: eskolaz kanpokoak, musika, zinea eta marrazki bizidunak, App-ak eta jostailuak, ipuinak eta literatura, jolasa, hezkuntza eta gurasoentzako aholkuak.

Nafarroa mailako eta tokiko kultur agendak ikusgai daude beste atal batean eta, honekin batera, etxean kulturaz gozatzeko proposamenak ere badaude. Horretaz gain, web orrialde osoa ele biz dago, edukiak gaztelaniaz zein euskaraz ikusteko aukera dagoelarik. ■

► Los 28 servicios de euskara de las entidades locales de Navarra han creado un portal web con recursos para familias de alumnado que estudia en euskera.

EUSKARABIDETIK



SAREAN EUSKARAZ

Euskarazko kultura digitala sustatu eta ezagutaraztea da Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren bitartez, bultzatutako Sarean Euskaraz programaren helburu nagusia, egungo sormenerako teknologiak euskaraz erabili ahal izateko bideak aztertuz.

Horrekin batera, hauek ere badira ekimen honen xedeak: softwarearen euskaratzea bultzatzea, horiek instalatzeko nahiz erabiltzeko ohitura sustatzea eta euskarazko IKTen sektorea ikusgarri egitea eta balioestea.

Gazteak, euskara eta sormenerako teknologiak dira Sarean Euskaraz egitasmoaren ardatzak. Gure etorkizuna diren gazteak dagoeneko gure oraina diren teknologietan trebatu behar dira, gure hizkuntza zaharrak etorkizun bizia eduki dezan. Pandemiak oso epe motzean teknologia hauen garrantzia eta digitalizazio prozesuak areagotu ditu. Horregatik, are premia handiagoa dago gazteen prestakuntza teknologikoa sustatzeko eta IKTetan euskararen erabilpena zabaltzeko. Sarean Euskaraz lau urtez etengabe egindako lanarekin euskarazko IKTen erreferentziazko programa bilakatzen ari da, urtez urte berrikuntzak gehituz eta bide berriak irekiz.

Era beran, Sarean Euskaraz programa Nafarroako hiri eta herri ezberdinetara zabaltzeko ahalegina aipagarria da. Hiritar guztiei zerbitzua berdintasunean eskaintzeaz gain, IKTen prestakuntza landa guneetara eramateak garrantzi berezia dauka, digitalizazioa landa garapenerako estrategikoa baita, eta herriak husteko arriskua saihesteko prebentziorik onena.

<http://sareaneuskaraz.eus/>

JARDUNALDIAK

DBHko 4. eta Batxilergoko 1. ikasmailetako ikasleei zuzendutako jardunaldiak 5. ediziora iritsi ziren 2021 urtean. Jardunaldien edukien artean bideomapping-a, App-ak sortzea, errealitate birtuala, Arduino programazioa edo 3D inprimagailuen erabilera daude. Urte horretan, Europako Kontseiluak mugaz gaindiko trukeak eta kultura digitala sustatzen dituzten jardunbide egokien adibide gisa onartu zuen Sarean Euskaraz jardunaldien ekimena. ■



HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)

Adimen artifiziala.....	Inteligencia artificial
Ahots-mezua.....	Mensaje de voz
Aplikazioa.....	Aplicación
Banda-zabalera.....	Ancho de banda
Bateria kargagailua.....	Cargador de batería
Bereizmena.....	Resolución
Bideokonferentzia.....	Videoconferencia
Entzungailuak.....	.Auriculares
Estaldura.....	Cobertura
Esteka.....	Enlace
Fitxategia.....	Archivo
Hari gabekoa.....	Inalámbrico
Hodeian biltegitratzea.....	Almacenamiento en la nube
IP helbidea.....	Dirección IP
Klik egin.....	Clicar
Mikrofonoa.....	Micrófono
Nabigatzailea.....	Navegador
Ordenagailua.....	Ordenador
Ordenagailu eramangarria.....	Ordenador portátil
Pantaila.....	Pantalla

PIN zenbakia.....	Número PIN
Posta elektronikoa.....	Correo electrónico
Postontzia.....	Buzón de correo
Proiektagailua.....	Proyector
Sagua.....	Ratón
Sagu-azpikoa.....	Alfombrilla de ratón
Sarearekiko konexioa.....	Conexión a la red
Sareko kablea.....	Cable de red
Sare sozialak.....	Redes sociales
Satelite bidezko telefonia.....	Telefonía vía satélite
Seinale analogikoa.....	Señal analógica
Seinale digitala.....	Señal digital
SIM txartela.....	Tarjeta SIM
Sistema eragilea.....	Sistema operativo
Teklatua.....	Teclado
Telefono mugikorra.....	Teléfono móvil
Uhina.....	Onda
Ukipen-pantaila.....	Pantalla táctil
Webgunea.....	Sitio web
Web-orria.....	Página web
Zerbitzaria.....	Servidor
Zuntz optikoa.....	Fibra óptica
Zuzeneko sarbidea.....	Acceso directo

OHAR HISTORIKOA

Euskararen jatorria Nafarroan

Luis Ordoki Urdazi Nafarroako Kontuen Ganberako langile ohiak "Navarra Milenaria: Una mirada a su historia y a su futuro" liburua argitaratu du, Nafarroaren nortasuna nabarmentzen duena.

Bertan, euskarari buruzko kapituluak, Erdi Aroko Nafarroan euskara zela hizkuntza nagusia aipatzen da, eta bestetik Nafarroako euskara idatziaren sorreraren zerrenda ere aurki dezakegu.



Euskara idatziaren lehen agerraldiak

- Gure aroko lehen mendeak: euskara idatziaren lehen lekukoak hilarrietan ageri dira; besteak beste, Uxuen eta Lergan aurkituak.
- XI. mendea: euskaraz idatzitako lehen esaldiak aurkitu ziren San Millan de la Cogollako monasterioan (garai hartan Nafarroako Erresuman zegoena).
- XII. mendea: Santiagorako erromesentzat gida bat argitaratu zen. Bertan nafarrak eta haien hizkuntza aipatzen dira, euskarazko hitzen hiztegi labur bat barne.
- 1416: "Zalbako Matxinen gutun elebiduna". Bertan jasota dago euskarazko pasarte zabalena, Nafarroako Karlos III.a erregearen idazkariaren eta erresumako altxorraren buruaren artekoa.
- 1545: Lingua Vasconum Primitiae, Bernat Etxepare apaiz nafarrak idatzia. Euskaraz idatzitako lehen liburu ezaguna da, 15 poemez osatua.
- 1564-1567: Juan Pérez de Lazarragak 106 orrialdeko eskuizkribu bat idatzi zuen, estilo errenazentistako olerki eta testuekin.
- 1571: "Jesus Krist Gure Jaunaren Testamentu Berria", Joanes Leizarragak egindako Testamentu Berriaren itzulpena da; euskaraz egindako lehena. Joana III.a Albretakoak Nafarroako erreginak eskatuta.
- 1643: "Gero" liburua, Pedro Axular apaiz nafar-lapurarrak idatzia, euskal hizkuntzaren erreferentzia literario historiko nagusia da. Hizkuntza jasoaren eredu klasikoa da eta morala irakasteko idatzi zuen.

Luis Ordoki, que trabajó en la Cámara de Comptos de Navarra, ha publicado un libro sobre la personalidad histórica de Navarra donde dedica un capítulo al euskera.

www.euskarabidea.es

